2013ko URRIA

Igeldoko

43. alea

ORRI INFORMATIBOA

Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza Z/G. IGELDO
Tfonoa.: 943-31 30 30 e-posta: infogeldo@euskalerria.org

AZAROAK 10, HERRI KONTSULTA:

"IGELDO UDALERRIA IZATEA NAHI DUZU?" /4-9

ALBISTEAK

Jai Batzordea /2
Igeldko Gaztiak /2
Pelota Elkartea /2
Lezkarri Abesbatza /2
Sindikatua /3
Kixmi aisialdi taldea /3
Udazken Festa /12
Bota Puntua: Igeldok Donostiari maitasunez /12

KONTU KONTARI:

XABI GARMENDIA ETA NORA SAIZAR IGELDO TXAKOLINA /10-11

Kaixo herrikide!!!

Azken hilabeteetan, igeldotarron artean gai bat da nagusi, dudarik gabe; Igeldoren desanexioari buruzko herri kontsulta, hain zuzen. Gaiak duen garrantzia ikusita, erreportaje berezi bat egitea pentsatu dugu. Bertan bildu ditugu: prozesuaren nondik-norakoak (bilerak, herri kontsulta noiz eta nola izango den, galdera...), Siadecoren azalpenak eta herritarren iritziak.

Dena dela, herrian beste hainbat gertaera ere badira eta horiek ere bildu ditugu. Baita Igeldo Txakolinari buruzko elkarrizketa ere.

"Jaiak aurrera ateratzea, zuek gabe ezinezkoa izango zen"

Jai Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie herritarrei festetan emandako laguntzagatik.

San Pedro jaietan herritarrek emandako laguntza ekonomikoa eta izandako parte hartzea eskertu ditu idatzi honen bidez: "Dagoeneko hilabeteak diren arren herriko jaiak atzean utzi ditugula, gaurkoan berriz ere burua San Pedro jaietan jarri behar dugu, eta nola ahaztu igarotako momentu ederrak; elkarrekin barre, oihu, dantza… egin dugu, Igeldoren berezko ezaugarria den herri nortasuna sendotuz eta indartuz.

Baina festa hauek aurrera ateratzea, zuek gabe ezinezkoa izango zen. Eta batetik, bihotz-bihotzez eskertu nahi dugu krisia deituriko une zail hauetan eman duzuen laguntza ekonomiko itzela; eta bestetik, ekimenetan izandako parte-hartzea eta hauen antolakuntzan emandako laguntza.

Beraz, milesker eta jarrai dezagun herria eraikitzen!".

Soineko berde-morez jantzi zituzten jaiak, gazteek

Ikasturte berriari begira, batzarra eta afaria egiteko asmoa zuten, baina Herriraren kontrako polizia operazioa izan zela eta, bertan behera utzi eta Bilborako deia egin zuten.

Igeldoko Gaztiak taldea martxan jarri zenetik, ekintza ugarik eman diote bizia herriari. Eta egindako ekarpen hori aitortuz, eurek izan zuten San Pedro jaietako txupinazoa botatzeko ardura. Txupinazoan, bertso bat abestu zuten, irudikatuz, etorkizuneko Igeldorako nahi dituzten baloreak: natura, parekidetasuna, euskara, auzolana... (zero zabor filosofia praktikan jartzeko asmoz, baso berrerabilgarriak erabiltzeko deia ere egin zuten).

Bertsoa 4 lagunek abestu zuten, beste bik Ttonttorro igotzen zuten bitartean. Beste 2 kidek bertsoaren letra zegoen pankarta ere bota zuten eskola zaharreko balkoitik. Ondoren, arin arin eta fandango herrikoia dantzatu zuten guztiek.

Txupinazoko bertsoa

Herriko gazteon esku
txupinaren ohorea
jaiei jantzi nahi diegu
soineko berde-morea
desio dugu izan dezaten
euskararen zaporea
hori da guk herri honi eman
nahi diogun kolorea.
Auzolana oinarri
eman indarra herriari!

Ekintzak, zehaztekotan

Kurtso berriari begira, urriaren 5ean ziren martxan jartzekoak. Batzarra egin behar zuten lehentasunak, helburuak eta ekimenak zehazteko, eta ondoren, afaria. Baina bertan behera uztea erabaki zuten Herriraren kontrako polizia operazioa zela eta, Bilboko manifestazio nazionalera joateko deiarekin bat egin zutelako.

Pelota Elkartearen loteria, salgai

Ikasturte berriarekin, Igeldoko Pelota Elkartea ere martxan da eta jakinarazi dute Gabonetako Loteria salgai dutela dagoeneko. Herriko tabernetan erosi daiteke edo elkarteko kideei eskatuta.

Lezkarri abesbatza berriz martxan, zuzendaria osatuta

Lezkarri abesbatzak Orri Informatiboari jakinarazi dioenez, abesbatzako zuzendariak osasun arazoak izan ditu eta geldirik egon dira. Baina hasi dira berriz entsaioekin; asteazkenero, 20:00etatik aurrera.

Sindikatuaren teilatua berritzeko proiektua martxan da

Behemendiren diru laguntza bat aprobetxatuz, proiektua aurkeztu zen Donostiako udaletxean eta lizentzia lortu da. Dena dela, ez da nahikoa diru eta IHKk laguntza emateaz gain, herritarrena ere beharko dela azaldu dute kooperatibako kideek.

"Sindikatua oso egoera txarrean dago eta aspaldiko beharra da teilatua berritzea, eraikina zutik mantentzeko", diote kooperatibako bazkideek. Helburu horretarako, Behemendiren diru laguntza bat erabili zitekeela ikusi zuten eta proiektua martxan jartzea erabaki zuten. Donostiako udaletxean aurkeztu zuten proiektua eta obra egiteko lizentzia lortu da. Orain, enpresa desberdinei aurrekontuak eskatu dizkiete. Azpimarratu dute, obra presazkoa dela, "subentzioa lortzeko urte bukaerarako egina egon behar baitu".

15.000 euro inguru, falta

Obra egiteko, Behemendiren diru laguntza ez dela nahikoa gaineratu dute bazkideek eta hainbat bilera egin dituzte dirua nondik atera pentsatzeko. Igeldoko Herri Kontseiluak ere zati bat jarriko duela azaldu dute, baina oraindik ere, 15.000 euro inguru gehiago beharko lirateke. Hori horrela, laguntza, herritarrei ere eskatu beharra ikusi dute. "Akzioen bidez edo, sozio gehiago egitea izan daitekeela bidea pentsatu dugu. Azken batean, erabilpen publikoa eman nahi zaio sindikatuari eta herritarrei zabaltzea egokia dela iruditzen zaigu".

Haurrentzako tailerrak izango dira Udazken Festan, Kixmiren eskutik

Ludoteka eta Haur txokoa ere martxan daude urriaren 5az geroztik. Aurkezpen-eguna izan zuten haur, guraso eta begiraleek. Bestalde, hilabetean behin, tailerrak antolatuko dituzte.

Urriaren 19 eta 20an Udazken Festa izango da Igeldon eta haurrek ere, euren tartea izan dezaten lanean dabil Kixmi. Hori horrela, haurrentzako tailerrak izango dira larunbat arratsaldean.

Ludoteka eta Haur txokoa, martxan

Urriaren 5ean, Kixmik Ludoteka eta Haur-txokoa aurkezteko eta ezagutarazteko eguna antolatu zuen. Txokoen aurkezpena aitzakiatzat hartuta, haur, guraso eta begiraleek elkar ezagutzeko eta harremanak sendotzeko aukera izan zuten, jolasen bidez. Eta goiza ondo bukatzeko, luntx eder baten inguruan bildu ziren denak.

Behin aurkezpen-egun honen bidez ikasturteari hasiera emanda, Kixmik hilabetean behin tailerrak antolatuko ditu espazio hauetan.

Ekintza ugari, hilabete hauetan

Udaberri festaren baitan, maiatzaren 18a izan zen haurrei eskainitako eguna eta lorontzi handietan landare mota ezberdinak landatu zituzten, kultur etxeko balkoiari bizia emateko asmoz. Ondoren, eskulan ezberdinak egin zituzten.

Herriko festetan ere izan zuten euren eguna herriko txikienek. Ekainaren 27an izan zen hori eta *Narratsilandia* deitu zioten "herri imajinarioan" igaro zuten goiza, nahi adina zikinduz eta disfrutatuz. Ondoren, bazkaria eta jolasak izan zituzten. Eta eguna bukatzeko, Irrien Lagunekin abestu eta dantzatu zuten.

Eskaintza berria, udalekuetan

Aurtengo udalekuetan, haurrek epe ezberdinetan apuntatzeko aukera izan dute: hilabete osoan, lehenengo hamabostaldian edo bigarrenean. Aukera honek arrakasta izan du eta Kixmik aurrerantzean ere eskaintza honekin jarraitzea erabaki du.

Guztira 33 haur izan dira udalekuetan, "kopuru polita Igeldo bezalako herri baterako", azaldu dute begiraleek. Eta ekintza ugarirekin gozatu dute bai haurrek, bai begiraleek.

Igeldo udalerria izatea nahi duzu?

Desanexioari buruzko herri kontsulta izango da Igeldon azaroaren 10ean eta Diputazioak eta Igeldoko Herri Kontseiluak parte hartze prozesu bat jarri dute martxan. Egunotan, bilerak eta mahai inguruak izango dira, zalantzak argitzeko.

Igeldo udalerri izatea nahi den edo ez erabakitzeko, herri kontsulta egingo da, Gipuzkoako Diputazioak bultzatuta. Azaroaren 10ean izango da eta honako galderari erantzun beharko diote igeldotarrek: Igeldo udalerria izatea nahi duzu?

Diputazioak azaldu duenez, "helburua da, igeldotarrak parte izatea, Igeldoren etorkizunaren inguruan erabakitzeko prozesuan; eta modu zuzenean, herri kontsulta bidez, desanexioaren inguruko iritzia ematea".

BILERAK ETA MAHAI INGURUAK

1. MAHAI INGURUA	URRIAK 3, osteguna	20:00	Itsas Aurre k.etxean
Sektore ekonomik. bilera	URRIAK 7, astelehena	17:00	Itsas Aurren
Eragileen bilera	URRIAK 10, osteguna	17:30	Eskolan
Hegoaldea/ Mendebaldea	URRIAK 14, astelehena	20:00	Itsas Aurren
Etume/Amezti	URRIAK 17, osteguna	20:00	Buenavistan
Etume/Amezti (GAZTELANIAZ)	URRIAK 21, astelehena	20:00	Nicol's-en
Itsasaldea	URRIAK 24, osteguna	20:00	Itsas Aurren
Kaxkoa	URRIAK 30, asteazkena	20:00	Din din elkartean
2. MAHAI INGURUA	AZAROAK 8, ostirala	20:00	Itsas Aurren

Parte hartze prozesua martxan

Diputazioak eta Igeldoko Herri Kontseiluak elkarlanean, parte hartze prozesua jarri dute martxan, herri kontsulta dela eta. Irailaren 29an Herri Batzarra izan zen eta bertan, parte hartze prozesuaren diseinua azaldu zuten Herri Kontseiluko kideek. 80 herritar inguru elkartu ziren batzarrean eta herritar hauek plazaratu zituzten galderak eta kezkak bildu zituzten Herri Kontseiluko ordezkariek. Herri kontsulta egin bitartean, bilerak eta mahai inguruak izango direla azaldu zuten eta bilera horietan galdera horiek erantzungo dituztela. Bilera eta mahai inguru horietan, Diputazioko eta Itsas Aurre elkarteko ordezkariak ere izango dira.

Mahai inguru eta bilera bana egin dira dagoeneko.

Herri kontsultaren ostean, prozesuaren balorazioa egingo da.

Herri kontsulta, noiz eta non? Eta zeinek izango du bozka emateko aukera?

Herri kontsulta azaroaren 10ean, igandean, egingo da Itsas Aurre kultur etxean. Goizeko 09:00etatik 20:00ak arte izango da botoa emateko aukera.

Bozka emateko eskubidea izango dute, Igeldoko hauteskunde barrutiaren barruan bizi diren herritarrek. Eta herritar horien artean, bozkatzeko eskubidea honakoek izango dute: irailaren 30a baino lehenago barruti horretan erroldatutako herritarrek eta azaroaren 10a baino lehenago 16 urte bete dituzten herritarrek.

Herri kontsultaren eguneko baldintzak Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Herri Kontseiluak bermatuko dituzte.

Harremanetan jartzeko modua

Prozesuaren inguruan informazio gehiago nahi duenak, Igeldoko Herri Kontseiluarekin harremanetan jarri besterik ez du. Horretarako, honako aukerak daude: *herrikontseilua@gmail.com* edo 943 31 30 30.

Igeldo ekonomikoki bideragarria dela dio Siadecoren txostenak

Siadeco enpresak txosten bat egin du, Igeldok ekonomikoki aurrera egiteko gaitasuna duen jakiteko. Txostenaren berri emateko bilera antolatu zuen Itsas Aurrek irailaren 7an. Parte hartze handia izan zen; 120 herritar azaldu ziren.

Joan den irailaren 7an, bilera informatibo bat antolatu zuen Itsas Aurre elkarteak. Udalerri izanda, Igeldok ekonomikoki aurrera egiteko gaitasuna ote duen azaltzeko izan zen bilera. Hori argitzeko, Siadeco enpresak azterketa sakon bat egin du eta Juanjo Allur enpresako kideak eman zituen azalpenak.

Egindako txostenean oinarrituta, Igeldo ekonomikoki bideragarria dela azaldu zuen Allurrek. Eta bideragarria izateaz gain, Igeldok aurrezki ahalmena izango lukeela ere gaineratu zuen, inbertsio eta kapital gastuetan erabiltzeko. Aurreikuspen hauek egiterako orduan, Igeldoren antzeko ezaugarriak dituzten Gipuzkoako herriak hartu dituzte oinarri (Berastegi, Amezketa...).

Igeldo, herri gaztea eta Gipuzkoako tarteko udalerria

Siadecoren txosteneko datuak kontuan hartuz, Igeldok 1.071 biztanle ditu eta 10,153 km2-ko azalera. Horrez gain, 18 urtetik beherako biztanleriak pisu gehiago du eta 65etik gorakoak gutxiago. Biztanle kopurua eta azalera kontuan hartuta, Igeldo, Gipuzkoako tarteko udalerria izango litzateke; ez haundietakoa, ez txikietakoa. Bestalde, jarduera ekonomikoari dagokionean, zerbitzuak dira nagusi.

Fondo Foraletik diru sarrera nagusia

Igeldoren ohiko sarrerak 1.147.680 euro izango liratekeela kalkulatu dute. Bertan sartuko lirateke: zuzeneko zergak, zeharkako zergak, tasak eta bestelako sarrerak, ohiko transferentziak (Fondo Forala, besteak beste) eta ondare-sarrerak. Erdia Fondo Foraletik (Diputaziotik) lortuko litzateke: 588.739,07 euro.



Ohiko gastuetarako, berriz, honako kopurua kalkulatu dute: 1.049.471,02 euro. Bertan sartuko lirateke: pertsonal gastuak (5-6 udal langile), ondasun arruntak eta zerbitzuetako gastuak (konponketak, mantenua, materiala...), finantza gastuak eta transferentzia arruntak (San Markos, Añarbeko Urak, autobusa).

Hori horrela, Igeldok 98.000 euro inguruko aurrezki ahalmena izango lukeela kalkulatu dute.

Autobusa eta zergekin zer?

Bilera informatibora 120 lagun inguru gerturatu ziren eta hainbat herritarrek euren kezkak azaldu zituzten. Batez ere, autobus zerbitzuak sortzen du kezka. Allurrek azaldu zuen, egungo zerbitzu bera mantenduta egin dutela txostena. Kasu horretan, Siadecoren proposamena da, Donostiako Udalarekin eta Donostiako Autobus Konpainiarekin adostasun batera iristea eta elkarren artean zerbitzu bat izatea. Igeldok kostu erdiaz bakarrik egin beharko luke kargu, zerbitzu hori igeldotarrentzat eta donostiarrentzat izango litzatekeelako.

Zergei dagokienean, Igeldoko herritarrek zerga merkeagoak ordainduko lituzketela azaldu zuen Allurrek, "orain hiri haundi baten zergak ordaintzen baitituzue".

Errepide nagusiaren mantenua ere bada beste kezka bat.

Autobus zerbitzuaren ardura, Diputazioarena

Itsas Aurre elkarteak modu positiboan baloratu du bilera eta parte hartzea: "120 lagun inguru elkartu ginen eta bertaratutakoek galdera ugari egin zituzten. Eskerrak eman nahi dizkizuegu parte hartu zenuten guztioi".

Siadecoren bileraren ostean, Itsas Aurrek hainbat bilera egin ditu Diputazioarekin eta horietan, herritarren kezkak azaldu dizkiote. Autobusari dagokionean, Diputazioak argi azaldu zuen eskumena berea dela. Beraz, autobus zerbitzua Diputazioak ziurtatuko du. Errepide nagusiari dagokionean, Diputazioko arduradunak esan zuen bidearen mantenua, zati garrantzitsuena, bere ardura dela. Izan ere, bide interurbanoak bere konpetentzia dira.

Horrez gain, Itsas Aurrek gogorarazi du, zalantzak, kezkak, proposamenak erantzuteko, helbide elektronikoa dutela. Honakoa: *itsasaurre89@gmail.com.*

Herritarrei galdezka

Orri Informatiboak herritarren iritzia plazaratzeko asmoz, bina galdera egin dizkie adin, genero, sektore eta iritzi desberdinetako 8 herritarri.

Udalerri izateari ze alde on ikusten diozu? Eta ze alde txar?

Ainhoa Gorostidi

Alde onak:
Alde positiboak asko genituzke, baina aipagarriena, ekonomikoki bideragarriak garela jakinik, guk jarritako diru hori Igeldon bertan inbertitzeko erabiliko litzatekeela, Igeldok dituen beharrak asetzeko, eta ez orain arte bezala, Donostia guztian erabiltzeko, Igeldora ezer gutxi iritsiz.

Horrez gain, gure beharrak gertutik ikusiz, dauden zerbitzuak mantentzeaz gain, berriak ere sortuko lirateke.

Gure nortasuna mantentzen ere erraztuko liguke: gure jai, ohitura, hizkuntza... hau da, Gipuzkoako landa herri euskaldun bat izanez, eta ez Gipuzkoako hiriburuko auzo bat.

Alde txarrak:
Zerbait aipatzekotan, ardura litzateke; baina orain arte ere, urte luze hauetan, Herri Kontseiluak lan hau bete izan du eta eskumenik gabe gainera.

Alex Aisa

Alde onak:
- Baliabideen kudeaketa bertatik egitea.
- Herriaren garapenaz eta norabideaz erabakitzeko aukera gehiago izatea.
- Herri nortasuna trinkotzeko onuragarria izatea.

Alde txarrak:
- Baliabideen eskaxiak oinarrizko zerbitzuen kalitatea mugatu dezake.
- Beste erakundeekiko menpekotasun handia, baliabide ekonomiko propioak sortzeko gaitasuna mugatua izanda.
- Egungo herri nortasunaren aurkako erabakiak hartzeko arriskua, zerbitzuak hobetzeko diru premiak eraginda.
- Herritarren arteko gatazkak areagotzeko arriskua.

Angel Irizar

Alde onak:
Gure nortasuna kontserbatzeko aukera emango digu, bestela galdu egingo dugu gure identitatea. Igeldo beti herri bat izan da eta ez du zerikusirik Donostian bizitzeko moduarekin; adibidez, Avenidako bizimoduarekin. Eta bertako jendea gustora etortzen da Igeldora: inguruneagatik, lasaitasunagatik... Festetan ere ikusten dugu jendea nola etortzen den herriaz gozatzera. Eta hori guztia mantentzeko, beharrezkoa da udalerria izatea.

Ekonomia aldetik ere, norberaren etxea norberak manejatzea garrantzitsua da, eta hori lortuko dugu udalerri izanda.

Alde txarrak:
Jendea gehien kezkatzen duena da, dirua izango ote dugun edo ez, eta hori izango litzateke alde txarra. Baina Siadecok azterketa bat egin du eta txostenean argi azaltzen da udalerri bezala Igeldok aurrera egiteko aukera izango lukeela ekonomikoki. Gainera, pare bat laguni erakutsi diet azterketa, eta oso serioa dela esan didate. Diputazioak ere dirua jarriko du udalerri bagara.

Amezketarekin konparatu gaituzte zenbait kasutan, txostenean, eta han lortu badute, hemen ere bai. Ez dugu industriarik Astigarragak edo Usurbilek bezala, baina beste herri mota bat izango gara. Gu baino herri askoz txikiagoak badaude Gipuzkoan, Albistur edo Orexa adibidez, eta haiek ez dute arazorik udalerri bezala funtzionatzeko.

Nekane Etxebeste

Hasteko, esan nahi dut ez nagoela gaian guztiz jarria; izan ere, lana dela eta, ez dut aukerarik izaten bileretara joateko.

Hala ere, udalerri izate horrek niri beldurra ematen dit. Hobe bada, hobe, baina ez dakit, nik ez dut hain argi ikusten. Diputazioa ere dirurik gabe dago eta beraz, guri nola emango digu? Egia esan, berdin dit izenak; berdin dit auzo deitzen gaituzten edo udalerri. Nik nahi dudana da, okerrera ez joan. Eta ez dut gehiago ordaindu nahi, lehendik ere nahikoa ordaintzen dugu.

Pakita Urruzmendi

Alde onak:
Erraztasuna ikusten diot nik, denerako. Udaletxea bertan izango dugu paperak-eta egiteko eta bertako herritarren premien arabera egingo dira gauzak: adibidez, bertako gazteentzako etxeak. Herriaren matenimendua ere egingo da, orain arte Donostiak ez baitu ezer askorik egin: herri bideak txukundu eta konpondu...

Herri txiki asko daude Gipuzkoan. Orendain ere ikusi genuen orain dela 2-3 udara eta oso ondo funtzionatzen du. Baliarrain ere ezagutu genuen.

Alde txarrak:
Alde txarrik ez diot ikusten, oraingoz behintzat. Moldatuko gara. Herri txiki asko daude Igeldo bezalakoak; beraz, zergatik gu ez? Dirua bertan erabiliko da.

Antonio Zendoia

Alde onak:
Izango ditu, gertutasuna-eta, baina nik alde txarrak gehiago ikusten dizkiot.

Alde txarrak:
Ekonomikoki arazoak izango ditugula iruditzen zait. Herria mantentzeko zaila dago: bideak, autobusa... Diputazioak emateari utzi egingo dio berak biltzen ez badu. Niri iruditzen zait ez dagoela dirurik hemen egin behar diren gauzetarako.

Olimpia Igor-Arrese

Alde onak:
Aldez aurretik esan nahi nuke, Igeldoko bizimodua, herri txiki baten bizimodua dela eta Donostiako auzo baten bizimoduarekin inongo zerikusirik ez duela (edo oso gutxi).

Hau esanda, alde on nagusiena niretzako da, herritar gehiagoren beharrei erantzuna emateko ahalmen haundiagoa izango dugula. Nekazal ingurumen batean bizi gara Igeldon, beraz, herriaren eta bere herritarren beharrak ere, beste auzo batzuekin konparatuta, zehatzagoak dira (bereziagoak) kasu askotan, eta haiei erantzun egokia emateko aukera izango dugu.

Bestalde, finantza txosten bat egin da eta gure eguneroko beharrei aurre egiteko baliabideak badaudela badakigu, eta soberan gainera. Beraz, gaur egun, Igeldon oraindik hobetzeko (eta kasu askotan egiteko) dauden gauza pila egin ditzakegu.

Alde txarrak:
Donostiak badu bere egitura, bere lan taldeak, profesionalak, teknikoak, zerbitzuak... guztiak %100ean martxan.

Guk berriz, dena egiteko dugu, eta pertsonek garrantzi berezia izango dute prozesu honetan. Gure helburuak betetzeko, ze pertsonak diren egokienak asmatzea izango da zailena. Herria ondo kudeatzeko eta ondorioz benetan herritarren bizitza hobetzeko, gogo eta jakituria handiz lan egin behar da.

Mariano Uranga

Alde onak:
Alde batetik, udaletxearen gertutasuna. Tramiteak eta gestioak hemen egingo ditugu, etxean egingo ditugu. Eta tratua ere gertukoa izango da, errazago izango da.

Bestetik, ekonomikoki biablea dela ikusi da azterketan. Beraz, zergatik ez?

Alde txarrak:
Diskusioak etxean izango ditugu, gure artean, baina hori ere normala da eta beste herrietan moldatzen diren bezala, gu ere moldatuko gara. Niretzako irabazteko gehiago dugu.

Xabi Garmendia eta Nora Saizar - Igeldo Txakolina:

Xabi Garmendia iazko bendimia garaian.

"Gure mahastian lurra harritsua da eta horrek ere bere nortasuna emango dio txakolinari, mineral ukituarekin"

Igeldo Txakolinak aurten ezagutu du merkaturatzea zer den, baina atzetik urtetako lana egina dute Xabi Garmendia eta Nora Saizarrek. 2010eko maiatzean egin zuten landaketa: 30.000 m2-ko azaleran, 11.500 landare. Bi urte eta erdian lortutako emaitza: 4.200 litro txakolin. "Bertako mahatsarekin egina, afrutatua eta edan errexa", diote. Proiektua aurrera eramaten jasotako laguntza eskertzen dute eta etorkizunera begira, ilusioz daude.

Nolatan erabaki zenuten mahastia jarri eta txakolingintzan hastea?

Betidanik izan dut gustoko frutarbolak lantzea (Xabi) eta duela 5 urte, landaketa egiteko aukera sortu zitzaidan, mahastizaintza ikastaro bat egiten ari nintzela, eta asko pentsatu ondoren, aurrera egin genuen.

Iazko uztarekin, aurten botilaratu duzue txakolina aurreneko aldiz. Normala al da epe tarte hau itxaron behar izatea aurreneko aldiz txakolina egiteko?

Bai, horrela da, iaz jaso genuen lehenengo uzta eta honekin 4.200 litro ekoiztu genituen. Epeari buruz berriz, mahats landare batek, gutxienez, 3 urte behar ditu zerbait emateko; eta produkzio onak ematen hasteko edota produkzio gorenera iristeko, 5 bat urte beharrezkoak dira.

Igeldo leku ona al da mahatsarentzat?

Gure ustez bai. Alde batetik, itsasoko salitreak, gaixotasunen aurka laguntzen duelako, mildiumaren (gorriaren) aurka, adibidez. Eta bestetik, irakurri dugunez, XVIII. mendearen bukaeran, mahasti gehienak desagertu egin ziren Europa guztian gaixo-

tasunen ondorioz. Eta Donostiako inguruetan, Igeldo izan zen mahastiak desagertzen azkenetako lekuetako bat.

Gainera, Igeldon, gure mahastian, lurra harritsua da eta uste dugu honek ere bere nortasuna emango diola txakolinari, mineral ukitu batekin.

Hori horrela, nolako txakolina da zuena? (usaina, zaporea…) Getariako denominaziokoa era bada…

Hasteko, bertako mahatsarekin ekoiztua da, usain oso afrutatua du eta karboniko aldetik nahiko lasaia (edan errexa) dela esan genezake. Eta bai, Getariako denominazioaren barruan dago.

Nolako harrera izan du Igeldo Txakolinak?

Denetarik dago; bai oso gustokoa dutenak eta baita asko gustatzen ez zaienak ere. Baina bueno, horrela dira gauzak…

Nora Saizar mahatsak biltzen.

Merkatuan tokirik ba al da?

Egia esan, merkatuan toki bat egitea zaila dago. Bai egoera ekonomikoagatik, ez baita lehen bezain beste txakolin saltzen, eta baita gero eta ekoizle gehiago gaudelako. Gainera, jendea oso fidela da marka jakin batzuekin eta hori aldatzea zaila izaten da kasu batzuetan. Baina denborarekin, gu ere ari gara pixkanaka gure tokia egiten.

> “Laguntza eman diguten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu eta bereziki, beraiek esaten zuten bezala, ‘mama goxo’ hau probatzeko aukera izan ez zuten Imanol eta Inaxio gure lagunei”

Non erosi edo probatu liteke?

Probatu: herriko tabernetan, elkartean, Antiguoko denda batzuetan, Tenis Jatetxean, Alde Zaharreko beste hainbat lekutan, etabar. Eta erosteko: zuzenean guri deituta, *igeldotxakolina@gmail.com* helbidera idatzita, gure Facebook orrialdean sartuta, eta baita gure inguruko norbaiti eskatuta ere. Izan ere, horrelako proiektu berrietan, guztien laguntza behar izaten da.

Aprobetxatuz, modu ezberdin askotan, proiektu hau aurrera eramaten lagundu diguten guztiei eskertu nahi diegu. Eta bereziki, zoritxarrez, beraiek esaten zuten bezala, "mama goxo" hau dastatzeko aukera izan ez zuten IMANOL eta INAXIO gure lagunei.

Nola doa aurtengo denboraldia? Berez laister izan beharko luke bendimia garaia…

Aurtengo denboraldia nahiko gaizki doa. Egin duen udaberri hotz eta euritsuaren ondorioz, landarearen zikloa asko atzeratu da, loratze garaia atzeratzearekin. Berez, udaberrian izaten da eta eguraldiak ez du askorik lagundu aurten. Dena ondo joateko, eguraldiak laguntzea komeni izaten da.

Joan den urtean, bendimia urriaren 6an eta 7an egin genuen, baina aurten, 2 edo 3 aste atzeratuko da seguraski.

Boteilaratzeko prozesurako gunerik ez duze, nola moldatu zarete?

Ez, guk ez dugu ekoizteko gunerik eta horregatik, mahatsa bildu ondorengo prozesu guzti hori, Getariako Elkano Upategian egin dugu.

Hurrengo pausoa gune edo bodega hori jartzea al da?

Egokiena hori izango litzateke, baina… joan gaitezen pausoz-pauso!

Etorkizunera begira, ze asmo?

Ba lan eta lan jarraitzea! Epe luzerako proiektua da gurea eta fruitua ematen hasteko lan asko egin beharra dago… Baina ilusioa badaukagu eta gogorik ere etzaigu falta, beraz, saiatuko gara!!!

DATUAK:
Mahastia: 3 Ha, hau da, 30.000 m2.
Mahats kopurua: 11.500 landare.
%85 Hondarribi Zuri barietatea; %15 beste bi barietate ezberdin.
Txakolin kopurua: 4.200 litro.

Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolarien 'Ez gara Palestinaz ari' ikuskizunarekin gozatzeko aukera izango da.

Udazken Festa, hurrengo asteburuan

Larunbat eta igandean izango da festa, hau da, urriaren 19 eta 20an. Haurrentzako tailerrak, antzerkia, azoka, bazkaria... antolatu dira. Herriaren aldeko kalejira ere bai.

Urtero urtero, urriarekin batera, Udazken Festa antolatu ohi da Igeldon eta aurten ere ez du hutsik egingo. Hurrengo asteburuan izango da festa, hau da, urriaren 19 eta 20an. Larunbat eta igandez izango da.

Oraingo honetan ere, ez da aspertzeko tarterik izango. Larunbat arratsaldean, haurrentzako tailerrak izango dira Kixmiren eskutik. Gau partean, berriz, antzerki emanaldia antolatu dute. *Ez gara Palestinaz ari* ikusteko aukera izango da.

Igandean, goizetik hasiko da festa, azokarekin. 12:30etan herriaren aldeko kalejira izango da. Ondoren, bazkaria egingo da, jubilatuak omenduz. Bertsolariak ere saiatuko dira giroa berotzen. Eta arratsaldean zehar: erakustaldia motozerrarekin, taloak...

Bota puntua

Orri Informatiboari bidalitako eskutitza

IGELDOK DONOSTIARI MAITASUNEZ

Kaixo Donostia:
Urte luzeak pasa ditugu elkarrekin. Tartean negu gogorrak elur, eurite, lurjauzi eta guzti. Baita uda bero, udazken eta udaberri goxo ere.

Urte hauetan guztietan babesa eman didazu. Egarri nintzenean edaten, gose nintzenean jaten... eta pixkanaka hazi eta sendotu egin naiz.

Elkar maitatu dugu eta elkarrekin haserretu ere egin gara.

Momentuoro ez duzu nire behar guztiak asetzen jakin izan eta batzuetan alde batera ere baztertu nauzu zure seme-alabetan azkena izango banintz bezala... baina badakit maite nauzula eta beti maite izan nauzula.

Baina iritsi da momentua. Artzeren hitzek Laboaren kantu zahar batean zioten bezala "eten dezagun gogoaren zilbor hestea. Benetan maite nauzun ama izan nahi baduzu, ni naizenetik nahi dudana izatera utzi behar nauzu... hau baita bide bakarra biok elkar sanoki maitatzeko, zuk zure nortasunaz eta nik nereaz..."

Bukatzeko esan, nahiz eta zilbor heste hori eten, elkarren ondoan jarraituko dugula eta beti maite izango zaitudala ni neu izanez.

Eskerrik asko Donostia.

Maitasunez...

Igeldo

Igeldoko Herri Kontseilua

Laguntzailea:

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián